



***Covid-19aren biktima guztiei zuzendutako oroitzapen-eta
aintzatespen-ekitaldia***
Acto de recuerdo y reconocimiento a las víctimas Covid-19

2021-09-21 Gasteiz 21-09-2021

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Herri agintari eta herri ordezkariok, jaun andreok, egun on.

Duela urtebete, irailaren 21ean, udazkenaren hasierarekin batera, Parke honi Sempervirens izena jarri genion, Covid-19ko biktimak gogoratzeko eta omentzeko.

Parke honekin erakundeen eta gizartearen borondatea erakusten dugu. Hainbeste familiak jasandako sufrimenduaren oroitzapena mantentzeko borondatea. Gizarteak pandemian erakutsitako elkartasuna eta konpromisoa bizirik eusteko nahia.

Pandemia hasi zenetik, 2020ko martxoaren 11tik, munduan lau milioi eta erdi pertsona baino gehiago hil dira Covid-aren ondorioz. Euskadin 4.700 baino gehiago izan dira.

Hau ez da zenbaki huts bat, pertsonak dira, familiak dira. Familia horietako bakoitzak galera propio bat izan du, sufrimendu handia eta luzea jasan du, mundu osoa hondatu duen birusaren eraginez.

Denak izango ditugu gogoan Sempervirens Parke honetan.

En Euskadi más de 4.700 personas han perdido la vida desde que la Organización Mundial de la Salud declarara la pandemia, el 11 de marzo del pasado año.

Este acto recuerda a estas personas y a sus familias. Tratamos de humanizar y personalizar nuestro sentimiento de cercanía, condolencia y solidaridad. Este espacio nos ayuda a encarnar y enraizar en la memoria la empatía con cada una de las víctimas de esta pandemia.

La sequoia gigante fue plantada aquí en 1860. Se secó en 2014 pero, por su monumentalidad, se ha mantenido en este lugar. A pesar de ser un árbol seco, su fuerza y solidez nos ayudan a representar la permanencia de la memoria colectiva.

La nueva secuoya, de la variedad Sempervirens, fue plantada el pasado año. Este árbol joven representa la vida. Todo aquello que nos ha unido. Representa la fuerza de nuestra complicidad y colaboración ante la adversidad; el espíritu del bien común.

Sempervirens simboliza, en este momento, la esperanza de iniciar un nuevo tiempo. La esperanza de dejar atrás el túnel pandémico e iniciar una etapa de recuperación personal y emocional; social, económica y de la convivencia.

Este Parque está concebido como lugar de recogimiento, silencio e interiorización.

Hoy compartimos el espíritu Sempervirens, miramos al futuro con esperanza, sin olvidar la experiencia pasada y la solidaridad con quienes más han padecido.

Parke honek zerbitzu publikoetako profesionalak egindako ahalegina ere gogorarazten digu. Oinarrizko zerbitzuetako profesionalen lana, boluntarioek eta erantzun zibikoa emateko konpromisoa hartu zuten pertsonak egindako ahalegina aitortzen dugu ekitaldi honetan.

Hildakoen familiak, profesionalak, erakundeak eta gizartea elkartu gara, gehien sufritu dutenei gure doluminak helarazteko eta babesa emateko.

Elkarrekin gaude eta elkarrekin jarraitu behar dugu. Ibilbide luze honetan jasotako irakasgaiak erakusten digu elkartasuna, gizarte kohesioa eta bizikidetzaren alde auzolanean jarraitu behar dugula; oraindik ere osasuna delarik kezka nagusia, osasun profesionalen irizpideak jarraituz.

Bidean galdu ditugunak ahaztu gabe, etorkizuna elkarrekin eraikiko dugu.

Xede honekin, hildakoen familia guztiak gogoan, amaitu dezagun ekitaldi hau bi minutuko isilunea partekatzen.

Eskerrik asko, goian beude!